

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

#### Diputatuen Kontseiluak 2016ko irailaren 20ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

##### – Foru Dekretuak:

##### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 62/2016 Foru Dekretua, irailaren 20koa, aldatzen duena abenduaren 28ko 77/2012 Foru Dekretua, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko langileen lan baldintzak (lanaldia, oporrak eta baimenak) arautzen dituena.

Diputatuen Kontseiluaren 63/2016 Foru Dekretua, irailaren 20koa, onartzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko lanpostu zerrendaren aldaketa.

##### NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 64/2016 Foru Dekretua, irailaren 20koa, aldatzen dituena nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako laguntzen oinarri arautzaileak, eta laguntza horietarako deia egiten duena 2016rako.

##### – Erabakiak:

##### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 594/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartu eta ordaintzen dituena Arabako hainbat toki erakundek Estatuaren 2015eko laguntzen banaketan izango dituzten partizipazioak.

Diputatuen Kontseiluaren 595/2016 Erabakia, irailaren 20koa, baimena ematen diona Gau-beako Udalari berriz ere finantzatzeko epe luzerako bi mailegu.

##### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 596/2016 Erabakia, irailaren 20koa, "Lagunketa SAU" enpresari esleitzen dizkiona Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzurako bulego eraikina altxatzeko obren oinarritzko proiektua eta gauzatze proiektua idazteko lanak, 494.689,20 eurotan (BEZA barne). 3 asteko epea egongo da oinarritzko proiektua idazteko eta hilabetekoa gauzatze proiektua idazteko.

##### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 597/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onarpena ematen diona kreditu gaitzeko 22/2016 espedienteari, 45.948,54 euroko zenbatekoaz, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, funtsez hornitzeko "Animalia osasuneko zerbitzuak (zati aldagarria)" partida, handiagoa baita zerbitzu eta zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuari; hau da, animalia osasuneko zerbitzu gisa kalifikatutako kontratuari dagozkion tasek aitortutako eskubideen zenbatekoa aurrekontuan jasotakoa baino.

Diputatuen Kontseiluaren 598/2016 Erabakia, irailaren 20koa, 134/2016 kreditu transferentziaren espedientea onartzen duena, 162.500 euroko zenbatekoaz, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta, funtsez hornitzeko "Araberi Basket Klubaren babes" eta "Zuzenak Kirol Klubaren babes" partida berriak, babes kontratuak sinatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 599/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena 5/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 2.000.000 euroko zenbatekoaz, "Ordainsari osagarriak. LPZko plazak" partidarako, 2016rako aurreikusitako langile gastuen gehikuntzarako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatuta.

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 600/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura lan egiten dutenen 2016rako ordainsariak igotzea.

Diputatuen Kontseiluaren 601/2016 Erabakia, irailaren 20koa, luzatzen duena Adinekoei Laguntzeko Zentro Integraleko San Prudentzio sorospen unitatean 74 leku hitzartzeko Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmena.

Diputatuen Kontseiluaren 602/2016 Erabakia, irailaren 20koa, luzatzen duena Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta funtzionarazteko Aiarako Udalarekin izenpetutako hitzarmena.

Diputatuen Kontseiluaren 603/2016 Erabakia, irailaren 20koa, Amurrioko Udalarekin lankidetzak hitzarmena izenpetzea onartzen duena, udalerrri horretan gizarte larrialdietarako laguntzak garatu eta ezartzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 604/2016 Erabakia, irailaren 20koa, Laudioko Udalarekin lankidetzak hitzarmena izenpetzea onartzen duena, udalerrri horretan gizarte larrialdietarako laguntzak garatu eta ezartzeko.

#### NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 605/2016 Erabakia, irailaren 20koa, "Excavaciones Rodó" sozietate kooperatibo mugatuari esleitzen diona "Arabako Lurralde Historikoko baso suteak itzaltzeko eta horretan laguntzeko lanetarako makinak" izeneko kontratua.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 606/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena hitzarmen bat izenpetzea Gasteizko Udalarekin eta Arabako Parke Teknologikoa Kontserbatzeko Hirigintza Erakundearekin, Gasteiz eta Arabako Parke Teknologikoen artean bidaiarien erabilera bereziko garraio erregularreko zuzeneko zerbitzua ezartzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 607/2016 Erabakia, irailaren 20koa, "Ceprenor SA" enpresari esleitzen dizkiona "Bide segurtasuna hobetzea foru sareko errepideetan. 2016-2017ko prebentzio eta arintze jardunak" izeneko lanak, 603.199,13 eurotan, BEZa barne. Gauzatzeko epea: 7 hilabete.

Diputatuen Kontseiluaren 608/2016 Erabakia, irailaren 20koa, ukatzen duena "Saltoki Araba SA" enpresak aurkeztutako erreklamazio bat, zeinaren bidez ordain dakiola eskatzen baitu "Arian, Construcción y Gestión de Infraestructuras SA" enpresak, "A-3314 errepidean, Izarrako zeharbidea, 36,390 kilometrotik 36,760 kilometrora (Geltoki kalea), egokitzeko eta urbanizatzeko eraikitze proiektua"ren esleipendunak, zordundutako diru kopuru bat.

Diputatuen Kontseiluaren 609/2016 Erabakia, irailaren 20koa, aldatzen duena "N-124 errepidea, 25,5 kilometrotik 31,9 kilometrora, bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua" eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, han 82/090 finka sartuz.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 610/2016 Erabakia, irailaren 20koa, hainbat lizitatzailerari esleitzen diona Eskola Kirolaren kanpainan parte hartzen duten kirolariak garraiatzeko zerbitzua, loteen eta ibilbideen arabera, guztira 257.000,00 eurotan, BEZa barne.

Diputatuen Kontseiluaren 611/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen 2016ko ordainsari orokorren eta antzinasunaren gehikuntza

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 612/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena “Vespa velutina Asiako liztorraren aurkako ekintza plana eta protokoloa” agiria, Arabako Lurralde Historikoan aplikatzekoa 2016an.

Diputatuen Kontseiluaren 613/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena “Uribarri Harana eta Aldako saneamenduko kolektore-hodi biltzailea industrialdeko ponpaketara arte eramatea eta hura handitzea” obraren lanen programa.